

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena izango da, fundak guk geuk diseinatu eta pertsonalizatuko ditugunez, makinarik erabili gabe. Gure produktuaren oinarria sortzeko, kanpoko enpresa baten laguntzaz baliatuko gara, CIDETEC, ikerketa aplikatuko erakunde bat delako eta teknologian eta industrializazioan oinarritzen da. Hala ere, oso garrantzitsua izango da gure enpresaren webgunea eta on-line denda eguneratzea, produktu asko nazioarteko mailan saldu ahalko ditugulako.